



## Gaur gauean musika eta dantza San Joan suaren inguruan

**TOLOSA** ▶ Banda, Udaberri  
eta Hodeiertz-en saioak

**ANOETA** ▶ Kantua, dantza  
eta erromeria izango da

**BESTE** ▶ Beste herri askotan  
ere izango dira suak ▶ 2,3

**TOLOSA** ▶

**Globoaren  
kanpainako  
sartuak  
esan dituzte**

Alde Zaharreko  
dendariak jakinarazi  
dituzte; uztailean,  
berriro globoa ▶ 4

**BELAUNTZA** ▶

**Jaiak  
antolatzeko  
moduarekin  
desados**

Alkatearen soldata  
igoera ere salatu du  
Sustraiak herri  
plataformak ▶ 6



### Estimatutako omenaldi jaialdia Isidro Larrañagari

**TOLOSA** ▶ Berak sortutako akordeoi orkestrak 25 urte bete dituen honetan, omenaldi jaialdia eskainiko diote igandean Leidorren bere ikasleek, ikasle ohiek, lagunek eta herritarrek Isidro Larrañagari. Musika «armairu batean» aurkitu zuela adie-

razi dio bizitza osoa horretan eman duenak HITZARI. Hasierak, emanaldi garrantzitsuenak eta bidaiak ere aipatu ditu. Igandean «egun txarra» izango omen du, «urduritasuna, emozio eta orotzapen asko» nahastuta, baina «estimatuta». LEIRE MONTES ▶ 5

タ T A T T O O  
tatuia artistikoa  
mikropigmentazioa  
mehandi  
pierzing  
osagaiak

943 11 05 47  
629 39 36 01

kale nagusia 11 TOLOSA

**ZABALA**

**KAFEAK**

**ONDO PASA  
SANJOANETAN!**

Nafarroa etorbidea, 2 **TOLOSA**  
Nagusi enparantza, 2 **ORDIZIA**

Tlf.: 943 65 47 95  
Tlf.: 943 88 29 88

**NEREA**  
1962

**LENTZERIA**  
Trikiniak,  
bainujantziak,  
hondartzarako  
kamisolak

Errementari kalea z/g • **TOLOSA**  
Tel.: 943 67 16 30

## EGITARRUA ▶ HERRIZ HERRI

## ABALTZISKETA

## GAUR ▶

**21:30.** San Joan sua. Ondoren, San Joan dantza eta soka-dantza herriko gazteek dantzatuta.

**22:30.** Imuntzo eta Beloki trikitilariak, goizaldera arte. Atsedendaldian, zurito apustua.

## BIHAR ▶

**11:00.** Meza nagusia. Ondoren, jubilatuentzako hamaiketako.

**11:00-13:00.** Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

**13:00.** Toka txapelketa herriko plazan.

**17:30.** Pilota partiduak: lehenik, herriko pilotariak; ondoren, gazteak: Artola-Nazabal / Iraola-Garmendia eta nagusiak: Apeztexea-Mintegi / Elurbe-Baez I. Jarraian, bertso saioa Larrañaga eta Narbaizarenkin.

**18:00-20:00.** Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

**23:30.** Erromeria Epelde eta Larrañaga trikitilarietara. Atsedendaldian, txinga apustua.

## ETZI ▶

**11:30.** III. Plater Tiraketa Lehiaketa herritarrentzat.

**16:00.** III. Mus Txapelketa (bikotekideetako bat herritarra izan behar du).

**16:30.** Ume jolasak herriko gazteentzat. Ondoren, txokolatada.

**21:00.** Sagardo dastaketa herriko plazan (afaria norberak eraman behar du). Ondoren, dantzaldia Triki ta ke taldearekin. Atsedendaldian, herri kirolak herritarren artean. Goizaldean, baratzuri zopa.

## IGANDEA, HILAK 26 ▶

**11:00-13:00.** Eskulan

erakusketa Kultur Etxean.

**17:00.** Apustua. Ondoren, zaldi karrera Amezketatik Abaltzisketara: Gipuzkoako Ligaxkarako puntuagarria.

**18:00-20:00.** Eskulan erakusketa Kultur Etxean.

**18:30.** Telleria harri-jasotzaile gaztearen erakustaldia. Ondoren, Mugerza eta Otaegi aizkolariak. Jarraian, Triki ta ke taldea.

**22:30.** Berrito, Triki ta ke taldearekin. Atsedendaldian, herriko eskolaren aldeko txekorraren zozketa.

**21:00.** Sagardo dastaketa herriko plazan (afaria norberak eraman behar du). Ondoren, dantzaldia Triki ta ke taldearekin. Atsedendaldian, herri kirolak herritarren artean. Goizaldean, baratzuri zopa.

## ANOETA

## Festa ofizialak.

## GAUR ▶

**18:00.** Buruhandi eta erraldioen kalejira Anoetako txistulariekin.

**19:00.** Udalak ardoa eta gailetak eskainiko ditu udal txekorraren artean.

**20:30.** Herri afaria plazan.

**22:45.** Loatzo musika eskolako txalapartariak, San Joan bezperako suaren jaia iragarritz.

**23:00.** Suaren inguruan San Joan kantuak, San Joan zortziko dantza eta erromeria: Markos Landa aita-semeak aho-soinuarekin.

## BIHAR ▶

**11:00.** Kalejira Anoetako txistulariekin.

**12:00.** Meza jubilatuei eskainia Landabaso abesbatzarekin. Ondoren, udal dantzariak eta txistulariak ariko dira herriko jubilatuen omenez.



Sua Santa Maria plazan. A.E.

**13:30.** Herriko jubilatuei pentsiadunen bazkaria Bentaldea bodegoian. Ondoren, dantzaldia.

## Festa alternatiboak.

## GAUR ▶

**20:00.** Triki poteoa.

**20:30.** Herri afaria plazan. Sua pizteko garaian kontzentrazioa eta ondoren izpiritu txarrak sutara botatzeko ekintza herritarra.

## ARESO

## GAUR ▶

**Arratsaldean.** Haurren afari-merienda, guraso elkarteak prestatuta. Afalostean, San Joan sua.

## BELAUNTZA

## Festa ofizialak.

## GAUR ▶

**21:00.** San Joan sua eta suzirikin batera kalejira txistulariekin. Ilunabarrean, erromeria goizaldera arte Pagadi trikitilarietara.

## BIHAR ▶

**Goizean.** Kalejira txistulariekin. **11:00.** Herri meza. Jarraian, txistulariak. Ondoren,

hamaiketako herrikoia herriko tabernan.

**12:00-14:00.** Herritarren eskularen erakusketa Kultur Etxean. Jarraian, bertsolarien lehen saioa: Telleria eta Mañukorta.

**18:00.** Pilota partiduak herriko gazteen artean. Ondoren, Zelaia eta Mujika, Irazusta eta Ugartemendiaren aurka.

**19:30.** Bertsolarien bigarren saioa. Ondoren, Santi eta Juanito trikitilariak.

**23:00.** Etxebeste eta Olasagasti aizkolariak eta Landarbidetako harri-jasotzaileak. Ondoren, erromeria goizaldera arte Santi eta Juanito trikitilarietara.

## ETZI ▶

**11:00.** Marrazki lehiaketa haurrentzat.

**16:30.** Haur jolasak eta haurrentzako herri kirolak: harri-jasotzea, txingak, sokatira, koskol apustua, kontrabandista lehiaketa, zaku lasterketa, toka eta gaztelu puzgarri erraldoia. Ondoren, txokolate jatea.

**19:30.** *Inaxitoren ametsak* antzerki emanaldia Trikuharri taldearen eskutik.

**21:00.** Herri afaria Pagadi Anaiak trikitilarietara alaituta.

## IGANDEA, HILAK 26 ▶

**12:00.** Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako herrikoia.

**12:00-14:00.** Herritarren eskularen erakusketa Kultur Etxean.

**18:00.** Toka, txinga eta bolo txapelketa. Ondoren, kostilla jatea barrikotearekin Udalak eskainita. Jarraian, jaiei amaiera emanaz erromeria goizaldera arte Ainara eta Olatz trikitilarietara.

## Festa alternatiboak.

## GAUR ▶

**21:00.** Suziria, jaiei hasiera emateko. Ondoren, herri borondatearen eta euskal presoen aldeko brindisa.

## BIHAR ▶

**17:00.** Dantzariak: Berastegiko haurrak, haur jolasak eta merienda.

**21:00.** Herri afaria. Segidan, toka eta txinga txapelketa. Trikitilariak eta bertsolariak alaituko dute festa hasiera.

## IGANDEA, HILAK 26 ▶

**11:00.** Hamaiketako, herri kirolak eta tortila txapelketa. Ondoren, tortila jatea.

## LEITZA

## GAUR ▶

**18:30.** Haurren *Inguruko*. Ondoren txistorra otartekoa.

**21:30.** Herri afaria plazan.

**24:00.** San Joan sua plazan. Ondoren Incansables txaranga.

## TOLOSAS

## GAUR ▶

**17:00.** Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik barrena.

**17:00.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin, Plaza Zaharretik aterata.

**18:00.** Suziria, udal txekorraren bakoitzi, eta kanpai hotsa, jaiei hasiera iragartzeko.

**18:00.** Incansables txaranga kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.

**18:00.** Plaza Zaharretan, Gorringo taldearen eskutik, haur ikuskizuna: *Kalejirafa*.

**18:30.** Tolosako margolarien XXXIX. erakustetaren inaugurazioa, Txinparta elkartearen.

**19:00.** Igarondon Squash

## TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

## Suaren garrei so

Eskualdeko hainbat herritan San Joan suaren inguruan bilduko dira herritarrak gaur gauean

## IMANOL GARCIA

Urteko gau magikoenaz gozatzeko aukera izango da gaur eskualdeko hainbat herritan. Egunak bere luzapen handiena eta gauak bere motzena izan ohi ditu gaur eta horrek suposatzen duen suaren garrekin nahastuz, ekitaldi berezia sortzen da: San Joan sua.

Herri askotan piztuko da gaur gauean sua eta askok begiratuko diote, garretatik begiak kendu ezinik. Beste batzuk, gainera, salto egingo dute suaren gainetik, urtean zehar

gorputzera itsatsitako gauza txar guztiak uxatzeko.

Suaren inguruan dantza eta kantuak izango dira nagusi hainbat herritan. Tolosan esaterako, Udaberri dantza taldeak eta Hodeiertz abesbatzak emanaldia eskainiko dute Santa Maria plazan. 22:00ak inguruan piztuko da sua eta ausarrenek bere gainetik salto egiteko aukera izango dute. Musika bandak San Joan zortzikoa joko du, ondoren neskek parte hartuko dute. Jarraian Udaberrikoen txanda izango da. Taldeko neskek aurten *Urdaian* kanta-dan-

tza Hodeiertzekoekin batera egingo dute. Ondoren, neska eta mutil dantzariak *Agurra* eta *Zinta Dantza* egingo dituzte. *Soinu Zaharren* txanda izango da ondoren: *Ormatxulo* eta *Punta Motz* dantzatzeko dituzte neskek. Mutilak hartuko dute lekukoa eta hiru dantza egingo dituzte: *Brokel Dantza*, *Uztai Txiki* eta *Zagi Dantza*. Azkenik, bai neske eta bai mutilak *San Joan* dantza egingo dute. Aipatzekoa da aurten neskek parte hartze handiagoa izango dutela, taldean mutilen eskasia dela-eta. Villabonako Oinkari

taldeko mutil dantzari batzuk ere parte hartuko dute emanaldian arrazoi berdinetatik.

Dantzaren ondoren, kantuen txanda iritsiko da. Hodeiertz abesbatzari egokituako zaio aurten emanaldia. Ohiko *Agur Jaunak* abestiarekin ekingo diote eta ondoren Xabier Sarasola beasaindarraren *Neskatxa ederra* kantarekin jarraituko dute. David Azurza tolosarrak moldatutako *Loriak udan* abesti herrikoia abestuko dute ondoren. Jarraian, Azurza berak konposatutako *Oihu hau* abestiarekin jarraitu-

ko dute. Abeslariak beren ahoz erabiltzeaz gain makila erabiliko dituzte, lurra joaz perkusio modura. Azkenik, *San Joan zortzikoa*-ren txanda izango da. Seguruenik, abesbatzakoek Santa Maria plazan bildutako herritarren parte-hartzea izango dute abesti honetan.

Suziriak ikusi eta entzuteko unea iritsiko da ondoren. Tolosako Udaltzaingoak azaldu duenez, Santa Klara aldean ezingo da aparkatu, hau da: Zuzardi Txikian, autobusak egoten diren lekuan, errekarren eskubi aldeko bideko lehen za-

Txapelketaren finala, XV. San Joan saria.  
**19:30.** Udaltzako Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.  
**22:00.** San Joan sua, Santa Maria plazan, udaltzako bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. San Joan zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian, Hodeiertz abesbatza.  
**23:30.** Su festak, 1. bilduma: Zamorano Caballer ebekoak.  
**00:00.** Kontzertua Plaza Berrian: Humus, Lobo Electrico eta Jone.

**BIHAR ▶**

**07:00.** Alkate Soinu Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.  
**08:30.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.  
**08:45.** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.  
**09:00.** Diana, Udaltzako Musika Eskolako gaitariekin.  
**09:00.** Txirindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXIII. Jose M. Anza Memoriala, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.  
**09:30.** Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez, udaltzatzak presidituta.  
**10:00.** Meza nagusia, Santa Maria parrokan. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute udaltzatzak, kofradiek eta Tolosako bordondantzariak; aldi berean, elkartetako eskopetariak

ordenantzak salbak botako dituzte betiko tokietan. Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Foruen plazan bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko.  
**11:45.** Txirindulariak (amaiera): XXXIII. Jose M. Anza memoriala.  
**13:00.** Kontzertua Plaza Berrian, Tolosako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin.  
**16:45.** Udaltzako Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zarretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean, Udaltzako, bordondantzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetari konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, Udaltzako, Zumardi Handira joango da, ohiturazko aurreku dantzatzeko.  
**18:00.** Zezen plazan, zezen-errekortarian I. Lehiaketa. Dehesa de Guadarrama ganadu ebeko zezen adar zorrotzekin aurrean.  
**18:00.** Berdura Plazan, Poxpolo eta Mokolo pailazoak.  
**19:00.** Beotibar pilotalekuan Zesta-punta jaialdia, jokalaria profesionalekin.  
**20:00.** Lopez Mendizabal plazan capoeira emanaldia Zorbioak taldearen eskutik.  
**23:00.** Su festak, 2. bilduma; Pirotecnia Zaragozana.  
**23:00.** Frontonen kontzertua Tomas Moreno Romero *Tomasito* kantariaren eskutik.  
**23:30.** Kontzertua Trianguloan Urko kantariaren eskutik.



Herri afariak ere izango dira. J.A.

**00:00.** Kontzertua Plaza Berrian: Sex Museum eta Brigada Criminal.

**ETZI ▶**

**09:30.** Alde Zaharreko kaleetan, dultzaineroen diana.  
**09:30.** Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta-Punta Eskolak antolatuta, XIV. San Joan Zesta-Punta Txapelketa.  
**10:00.** Igarondo udal igerilekuan, igeriketa probak, XXXVII. San Joan saria.  
**10:30.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin, Plaza Zaharretik aterata.  
**11:00-13:30 / 16:00-19:30.** Haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar...  
**11:00.** Bonberenea Txaranga kalez kale ibiliko da.  
**11:00.** Koadrilen arteko Tolosa Kup areto futbol txapelketaren finalak Berazubiko kiroldegian.  
**12:00.** Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Berazubiko plazan. Egun osoan: jokoak, txiste, irrinti eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia... Eguna alaitzen txaranga, dultzaineroak eta

trikitilariak ariko dira.  
**14:30.** Euskal Herria plazan, koadrilen herri bazkaria. Ondoren erromeria, Xanpetiki-dantza, Larrain-dantza eta Atila y los Unos taldea kontzertuan.  
**16:00.** Txirindulariak, Agustín Urkola proba, (Iurreamendira krono-igoera) Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.  
**17:00.** Berazubi futbol zelaian sanjoanetako XVI. Kimu Futbolaren finalak, X. Joseba Lasa Memoriala.  
**17:00.** Plaza Zaharretik zezen plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, agoazilxo eta zaldi mutilekin.  
**18:30.** Zaldi gaineko zezenketa, zezen-plazan. El Sierrero ganadu ebeko 6 zezen toreatuko dituzte Fermin Bohorquez, Sergio Galan eta Ivan Magro errejoneatzaileek.  
**18:00.** Berdura plazan kale-antzerkia haurrentzat *Txaribari*, Panta Rhei taldearen eskutik.  
**19:00.** Mulambo perkusio taldea kalez kale ibiliko da.  
**19:00.** Oriako Txaranga kalez kale ibiliko da.  
**19:00.** Beotibar pilotalekuan Zesta-punta jaialdi profesionala.  
**20:00.** Antzerkia Leidor aretoan: *La Coraje*.  
**23:00.** Su festak, 3. bilduma; A. Caballer.  
**23:30.** Dantzaldia Triangulo plazan, Imperial de Nochistlan mariachi taldearen eskutik.  
**00:00.** Plaza Berrian La Familia Iskariote eta La Pulqueria musika taldeak.

**IGANDEA, HILAK 26 ▶**

**09:00.** Diana, Udaltzako Musika Eskolako gaitariekin.  
**10:00.** Beotibar pilotalekuan II. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza esku pilota txapelketaren finalak.

**11:00.** Trianguloan Garabigomasaltoa, goiz eta arratsalde, 20:00ak arte.  
**11:00-13:30 / 16:00-19:00.** Haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar...  
**11:30.** Foruen plazan, Gipuzkoako eta Eskualdeko Toka Txapelketa, VII. San Joan saria.  
**12:00.** Berazubi kiroldegian, areto futbol, Arsenal Kirol Elkarrekin antolatuta (finalak).  
**12:00.** Berazubin, tenisa. San Joan sariaren finalak.  
**12:00.** Ori ibaian batel estropadak (finalak).  
**12:30.** Kontzertua Leidor aretoan, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren 25. urteurrena.  
**17:00.** Plaza Zaharretik zezen-plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, agoazilxo eta zaldi mutilekin.  
**18:00.** Korrida, zezen-plazan. Nuñez del Cubillo ganadu ebeko 4 zezen toreatuko dituzte Javier Conde eta Morante de la Puebla toreadoreek eta 2 zezenko Cayetano nobilleroak.  
**18:00.** Berdura plazan, haur ikuskizuna Kiki, Koko eta Moko pailazoaren eskutik.  
**19:00.** Triangulo plazan herri kirol saioa.  
**19:30.** Imperial de Nochistlan mariachi taldearen kalejira San Frantzisko ibiltokian.  
**20:00.** Losdelgas taldearen kontzertua Plaza Berrian.

**VILLABONA****GAUR ▶**

**22:00.** San Joan sua Errebote plazan Oinkari dantza taldea, Oinkari Txiki, Eresargi abesbatza eta Santio txistulari taldearekin.

tian eta Izaskungo igoeran, hasieratik autobioi zubi azpiraino. Su-festak ikusteko lekuak ere gomendatzen dituzte: Zubi Berrian, Zumalakarregi kalean —planetarioa bitarte— eta Aranburu jauregiaren terrazan.

Ez da Tolosa herri bakarra izango suaren festa dantza eta kantuez lagunduko dutena. Anoetan, herri afaria egingo da plazan eta ondoren Loatzoko musika eskolako txalapartariak suaren jaia iragarriko dute txalapartaren doinuez. Sua piztuta, San Joan kantauk abestuko dituzte herritarrek eta *San Joan zortzikoa* dantzatzeko dute. Ondoren erromeria izango da. Ekitaldi alternatiborik ere izango da: kontzentrazioa burutuko da suaren piztearekin batera eta ondoren izpiritu txarrak sutara botatzeko ekin-



Suaren inguruan abestiek beren lekua izango dute. I. ETXEBESTE

tza herritarra egingo da. Abaltzisketan ere, dantzarako tartea izango da. Herriko gazteek *San Joan dantza* eta *Soka-dantza* egingo dituzte. Belauntzan txistulariek alaituko dute suaren festa. Villabonan, herriko Oinkari dantza taldean, Oinkari Txikiren, Eresargi abesbatzaren eta Santio txistulari taldearen emanaldiak ikusi eta entzun ahaliko dira suaren inguruan.

Herri afari ederra egin ohi da Leitzan, sua piztu aurretik. Udalak jartzen ditu mahaia

eta aulkiak, eta edatekoa ere bere kontu izaten da. Herritarrek eraman behar dute jatekoa. Berezia izaten da afaria, mila lagun inguru biltzen direlako, hau da, herriaren heren bat. Sua eta gero, incansables txaranga jarraituz, jandakoa eta edandakoa erretzeko aukera izango dute leitzarrek.

Aukera ugari, beraz, eskualdean zehar udari ongietorria egiten zaion festa zahar hau gozatzeko, eta nola ez, suaren magiarene bitartez izpiritua berpizteko.

**FRONTON KAFETEGIA**  
 plater konbinatuak  
 ogitartekoak eta menua  
 San Frantzisko, 4 • Tel.: 943 65 14 70  
 TOLOSA

**Santamaria**  
 ELECTRICIDAD, C. B.  
 Korreo kalea, 26 bajo • Tfnoa: 943 67 12 49 • 20400 TOLOSA  
 Kale Nagusia, 1 bajo • Tfnoa: 943 67 03 35 • 20400 TOLOSA

## KULTURA ▶

**Txinpartaren  
pintura lehiaketan  
sari banaketa**

Txinparta elkarteak Felix Yarza bazkide zenaren omezez antolatutako duen 39. Pintura Lehiaketan 33 partaide izan dira; guztiak, Tolosaldean jaio edo bizi direnak. Gaur zabalduko dute lanen erakusketa 18:30ean elkartean eta egingo dute sari banaketa. Gaurtik igandera, 12:00-etatik 14:00etara eta 19:00-etatik 21:00etara ikus daiteke lanen erakusketa.

## POLITIKA ▶

**Tolosa Bizirik-ek  
deia egin du suan  
parte hartzeko**

«Azken bi urteetan jasaten ari garen *apartheid* egoera salatuzko», Tolosa Bizirik-ek dei egin die bere kide, eta, orohar, tolosar guztiei gaur bi ekintzatan parte hartzeko: 19:15ean Arrameleko konzentrazioan eta 21:30ean Santa Maria plazan izango den San Joan suaren inguruko festan, *No apartheid*, *herriaren borondatea errespetatu* lelopean.

## MERCATARIAK ▶

**Larunbat  
arratsean dendak  
ixtea eskatu dute**

San Joan jaiak direla-eta Tolosako Igarondo merkatarien elkarteak zera jakinarazi nahi die eskualdeko herri-tarrei, merkatariei eta erosleei: etzi, larunbata, hilak 25, Tolosako dendak ixteko proposamena egiten dutela. Goizez lana egin, eta arratsaldetan herriko dendek ateak itxi ditzaten nahi du Igarondok, era horretara, merkatariek ere jaietz goza ahal izateko.

## TXUPINAZOA ▶

**Tolosa CF-koek  
botako dute jaien  
hasierako suziria**

Denboraldi honetan eginda-lana nolabait eskertuz, Tolosako Udalak erabaki du gaur, 18:00etan, aurtengo sanjoanak iragartzeko udal-letxe bakoitiko botako duten txupinazoa Tolosa CF-ko mutilek botako dutela. Herriko futbol taldearen ordezkari bat izango da udal-letxe bakoitiko, eta taldeko kapitain Aiert Pradosek emango dio suziriari.

## HAUR IKUSKIZUNA ▶

**Txupinazoaren  
osteko ikuskizuna  
aldatu egin dute**

Gaurko txupinazoaren ondoren iragarrita zegoen haur ikuskizunean halaberrezko aldaketa bat izan da. Gorringo taldeak *Kalejirafa* eskaini behar zuen, baina taldeko batek istripua izan, eta ez du hitzordura agertzerik. Horren lekuan, Detraka taldearen *Zirkus mirkus* ikuskizuna izango da, lehengo ordu eta leku berean: alegia, 18:00etan, Plaza Zaharrean.

## TOLOSA ▶ MERCATARIAK

# Saritu mordoa

## Alde Zaharreko dendan globoaren kanpainako sarituak

## IRATXE ETXEBESTE

Alde Zaharreko dendan kanpainaren baitan jasotako boletoei badituzte sarituak: afariak Irene Irurzunek (Beti-Alaien 4 laguntzat), Lourdes Artolak (Agustin Enean, 2 laguntzat) eta Nerea Letamendiak (Astelehenan, 2 laguntzat) irabazi dituzte; leku zehatzetako kontsumo tiketak Alazne Larreak (Orbela), Mila Cansecok (Asteasuarra), Carmen Atxagak (Laier), Rakel Nietok (Kabi), Mainerrek (Iratxo), Manuel Gutierrezek (Elorri), Pello Arnae-

zek (Eguzki), Patxi Puertak (Elurra), Estibalitz Olaetxeak (Ikatz), Ainhoa Esnaolak (Egoki), Nerea Sanzek (Bikutz), Julen Arrietak (Raku), Maria Eugenia Osinagak (Maskor) eta Ana Bellosok (Iruña); kontsumo librekoak, berriz, Kontxi Agirrek, Arturo Leok, Maria Cruz Azkuek, Amaia Martinek, Kontxi Sainzek, Alaitz Iturzaetak, Josune Eizmendik, Conchita Orrubiak, Maite Sanchezek, Txaro Goikoetxeak, Carmen Simplerrek, Irene Larrak, Ibai Urkizuk, Antonio Hernandezek, Merche Gonzalezek

eta Fermin San Sebastianek. Sarituek Erretengibelego bulegora jo behar dute, dagozkien txartelak jasotzera.

Bestalde, joan den larunbatean Tolosako Alde Zaharreko merkatariek antolatuta Plaza Zaharrean egon zen globoak ordu eta erdi baino ezin izan zuen hegan egin haizetarean eraginez. Hori dela eta, Alde Zaharreko dendek eta globoaren erabilera kudeatzen duen enpresak hitzarmena egin dute, uztailako egun batean berri ere ekimena burutzeko. Zehazteko dago oraindik eguna.

## GRAFFITI ERAKUSKETA ▶



## Graffiti erakusketa jendetsua

Sanjoanetako egitarauaren baitan, Tolosako II. Graffiti Erakusketa izan zen joan den larunbatean Trianguloan Udaleko Gazteria sailak eta Gazte Topaguneak antolatuta. Guztira, hamalau graffiti-zale hurbildu ziren «beren artea erakusteko asotan». Euskal Herri osoetik etorritakoak ziren parte-hartzaileak, gainera: zehazki, Bilbotik, Iruñetik, Hendaiatik, Donostiatik, Beasaindik eta Tolosatik bertatik herrira etorriak. Hiru orduz aritu ziren beren artelanekin lanean, eta guztien artean graffiti erakusketa polita osatu zuten, argazkian ikus daitekeen bezala. HITZA

HERNIALDE  
AIXA  
felle garido  
gorbila laskarain  
**Ondo pasa Jaiak!**  
martin jose irraola, 10 • tolosa  
tel.: 943 67 56 54

**YULEN** ondo pasa  
sanjoanetan!  
Janaridenda  
Aita Larramendi, 3 • 20400 TOLOSA

**Dietetika eta Belardenda**  
**ZAINBERRI**  
Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

**TOLOSAGASA**  
Tolosako energia. Zurea  
Energía de Tolosa. Tu energía  
Arostegjeta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Faxa: 943 67 55 11

**FESTAK ONDO PASA!**  
**TOLARGI**  
Tolosako argia. Zurea  
La luz de Tolosa. Tu luz  
Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA  
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65  
Telf., matxurak: 610 44 00 88  
E-posta: [tolargi@tolargi.com](mailto:tolargi@tolargi.com)  
[www.tolargi.com](http://www.tolargi.com)

**ZERBITZU BULEGOA**  
**AIXA**  
Nominak - Kontabilitateak  
Zergak - Autonomoak  
Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 03 03  
Faxa.: 943 65 22 22  
[mjhuarte@euskalnet.net](mailto:mjhuarte@euskalnet.net)

TOLOSA ▶ MUSIKA

# Musika armairu batean aurkitu zuen ume hura

Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak 25 urte bete ditu; sortzailea omentzeko jaialdia antolatu dute iganderako

LEIRE MONTES

A itak jotzen zuen eskusoinua etxean. Behin, 7 urte zituenean, etxeko armairu batean aurkitu zuen akordeoi bat, eta bere kasa hasi zen jotzen, han eta hemen ikusitakoa imitatzen. Isidro Larrañaga akordeoi-jole ospetsua da musika jolasean ezagutu zuen ume hura. Bizitza eskaini dio musikari. Orain, hark sortu zuen Akordeoi Orkestrak 25 urte betetzen dituenean, ikasleren, ikasle ohiren, lagunena eta herritarren omenaldia jasoko du. Sanjoanetan izango da, igandean, kontzertu berezi batean, Leidor berritu aurretik egingo den azken emanaldian.

Larrañaga ez da omenaldizalea, eta igandean urduri jarriko dela esan dio behin eta berrituz; hala ere, esker oneko hitzak ditu denentzat: «Egun txarra izango da niretzat. Oso urduri egongo naiz, emozio eta oroitzapen asko nahastuko baitira. Baina benetan estimatzen du». «Biziki eskertzen» du akordeoiari: «Gehienek eskusoinua jotzeari utzi zioten aspaldi, batzuek zioten akordeoia desafinatua zutela, beste hainbatek giharminnez zeudela jotzeagatik... Baina ilusioz hasi dira berrituz entzaten, emanaldi honetarako. Erabat hunkituta nago».

25 urteotan Akordeoi Orkestratik pasatutako hainbat eta hainbat lagun elkarrekin ikustek «bete» egin du: «Oso pozgarria da niretzat haiekin berrituz egotea. Elkarrekin hainbeste bizi izan dugu... Mila esker denei». Ikasle ohiek egindako ahalegina ere «biziki eskertzen» du akordeoiari: «Gehienek eskusoinua jotzeari utzi zioten aspaldi, batzuek zioten akordeoia desafinatua zutela, beste hainbatek giharminnez zeudela jotzeagatik... Baina ilusioz hasi dira berrituz entzaten, emanaldi honetarako. Erabat hunkituta nago».

## Bizitza osoa musikari

Ibilbide luzea du Isidro Larrañagak. «Gogoratzen dut behin, kalean jolasean nenbela, Fabian bordan jotzeko proposamena egin zidatela. Ernio bidean zegoen borda hori, eta inguruko neska-mutil asko joaten ziren. Jotzeagatik 6 duro ematen zizkidaten; 5 amari ematen nizkion, eta bestea niretzat gordetzen nuen». Borda hartan, 12 urte zituela, hasi zuen bere ibilbidea akordeoi-joleak, eta bi urte beranduago eskusoinua erosi zioten, «zurria, ederra, opari aparta».



Isidro Larrañaga, atzo, HITZAREKIN solasean aritu ondoren. L. MONTES

Ramon Otamendi eta Ignacio Mokoroa maisuekin aritu zen musika ikasten. Eta, bitartean, «lagun artean, koadrilan eta herri txikitik jotzen». «Etengabe ikasten jarraitu nahi» zuen eta hala, 17 urte inguru zituenean, Jai Alai taldean hasi zen. «Oso giro ona zegoen gure artean. Haiekin nire lehen kontzertua gogoratzen dut oraindik, Orioko sanpedroetan». Gero, Poker taldearekin aritu zen, han eta hemen: «Askok ikasi nuen haiekin, oso musikari onak ziren». Bere bi semerekin Zirika taldean ere jo zuen, zazpi bat urtez. Aldi berean eskolak ematen eta orkestra zuzentzen ere aritzen zen, eta taldeetan jotzeari uztea erabaki zuen.

1953-54 ikasturtean hasi zen gaztetxoei akordeoi klaseak ematen. 1980an Kilometroak izan ziren Tolosan, eta ikasleekin kalez kale aritu zen. «Konturatu nintzen haiekin zer edo zer ateratzea bazegoela. Oporretan ezin izan nuen ideia bu-

rutik kendu. Bueltan ikasleei proposatzea erabaki nuen, eta baietz esan zuten segituan». Hala jaio zen Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestra, 30 bat lagunekin; 1980ko Santa Zuzilia egunean eskaini zuen lehen kontzertua, Iparragirren.

«Pixkanaka serioago entzaten eta kontzertuak prestatzen» hasi ziren. Euskal Herriko txoko askotan jotzen zuten, eta atzerrira ateratzen hasi ziren. Lehen txapelketan iritsi zen lehen saria. Eta ordutik, bata bestearen atzetik. Duela zazpi urte utzi zion eskolak eman eta orkestra zuzentzeari. Baina semeek hartu dute lekukoa: «Zorte handia izan dut, egindakoak jarraipena izango baitu».

«Bizimodua eta gozamena» izan dira urte hauek guztiak: «Dena eman didate. Ez nuke ulertuko bizitza hau gabe». Horregatik, nahiz eta eskolak utzi, ez du musika alde batera utzi. Bi disko atera ditu, eta hirugarrenari begira da jada. «Ezin dut geldirik egon: kanpoan nahiko ibili naiz, eta etxean aritzen naiz orain. Ikasten jarraitu nahi dut, ilusioa mantentzea ona da-eta. Afizio izugarria dut, eta jarraitzeko gogotsu nago».

## KONTZERTUA ▶

**Gaia.** Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestrak 25 urte, kontzertua eta omenaldia.

**Eguna.** Hilaren 26a, igandea. **Ordua.** 12:30.

**Tokia.** Leidor.

**in→** argiketariak & igeltseroak iturkinak & pintoreak arotzak eskaiolista & dekoratzaileak zoruak & leihoak altzariak & sukaldeak

**gremioen koordinazioa** Nafarroa etorbidea, 12 20400 Tolosa Tel.: 943 65 36 40

**"Xirimiri" Ondo ibili!!**  
Txokolategia  
Errementari kalea, 40 20400 Tolosa  
Telef. 943 67 52 23

**Mertzeria eta konponketak**  
**MATILAKO** Jai zoriontsuak pasa!  
Zumalakarregi, z/g • Tolosa • Tel.: 943 65 25 78

**KIKATZA** PINTXOAK - BOKATAK ANOAK PLATER KONBINATUAK  
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa  
Tfnoa: 943 67 49 13

**'ZURE UMEEN DENDA'**  
sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun aholkiak zakuak • maindireak • ohe estalkiak  
Haurdunaldirako arropa • Haur jantziak 0-2 urte  
BUGABOO • BEBECOMFORT • QUINNY • INGLESINA  
BEBECAR • JANE • MAXI-COSI • CASUALPLAY • STOKKE  
San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.-Faxa: 943 65 22 38

**SEGUROS BILBAO** **Zumardi**  
aholkularitza integrala  
San Joan festa zoriontsuak opa dizkizu  
Laskurain, 8 behea • TOLOSA  
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

Gozotegia, konfitegia eta izoztegia  
**ECEIZA**  
Teilak eta Zigarriloak  
Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 655161 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA

**MAIXINA** Sanjoanak ondo pasa!!  
Etxekotesna elektrikoaren konponketa  
Laskurain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

**PAULINO SORARRAIN & C**  
1.918 tik aurrera

- Fundiziorako modeloak egurrean, poliestirenoan eta resinan
- Dentsitate handiko polietilenoen mekanizatua
- Enbalaketa

Donostia Etorb. 6 • TOLOSA  
Tel.: 943 65 25 58 • Faxa: 943 69 73 49  
E-maila: PAULINO\_SOR@terra.es

## TOLOSA ▶

Merkatariak  
desados  
Rondillako  
bidegorriarekin

Sortu dituen arazoan berri eman dute, eta bidegorria kentzea eskatu

## ERREDAKZIOA

Rondilla kalean ezarri berri duten bide gorriaren inguruan jaso dituzten hainbat kexen ondorioz, Igarondo merkatarien elkarteak pasa den astelehenean bilera berezi bat egin zuen. Bertan Rondilla kaleko dendari guztiek hartu zuten parte eta ateratako ondorioak jendarean azaldu nahi izan dituzte.

Batetik, Rondillatik igarotzen den bidegorriaren desadostasuna azaldu dute, eta ongi egindako bidegorria nahi dutela eta ez korrika eta kale horren egoera kontuan hartu gabe egindakoa. Beraz, kale horri dagokion bidegorria kentzea eskatu dute.

Sortu den egoera aztertuta, «arazoak baino ez dituela sortzen», azaldu du merkatarien elkarteak: trafikoa arazoak, anbulantzia, autobusa, zabor biltzaileak... bezalako zerbitzuen kasuan arazoak, oinezko eta txirrianduan doazen zuzeneko arriskuak... Amaitzeko, «egoera aztertu gabe egin dela lan, kale hori herria gurutzatzeko bide nagusietako bat dela kontuan hartu gabe, eta beste irtenbide bat bilatu behar dela», azaldu du elkarteak.

## BELAUNTZA ▶ POLITIKA

Udalaren jarrera jaien  
antolaketan salatu du  
Sustraiak plataformak

Jai Batzordea «bakarrik eratu izana» salatu dute eta «alkatearen soldata igoera eskandalu hutsa» dela diote



Belauntzako Sustraiak plataformako ordezkariak herenegun emandako prentsaurrekoan. HITZA

## IÑIGO TERRADILLOS

Belauntzako Sustraiak herri plataformak herenegun prentsaurrekoa eman zuen, eta bertan Udalaren jarrera salatu nahi izan zuen.

Batetik, herriko festen antolaketan «Udalean dagoen EA-Erroizpe-PNV koalizioaren ustelkeriak eta gehiegikeriak»,

salatu zituen. Izan ere, «beste urte batez, Jai Batzordea bakarrik osatu dute, eta ondorioz, jai herritar eta partehartzaileen ordezkariak, beraien gustura moldatu dute egitaraua; kamarilla horretakoa ez den inork ez du aukerarik txikiena izan ezer esateko ez eta erabakitzeko ere», adierazi du Sustraiak plataformak.

Halaber, beraien aldetik, berriro ere, beste jai eredu baten aldeko apustua egiten jarraituko duela azaldu dute. «Horregatik, Belauntzako Sustraiak herritarrok antolatutako jai alternatiboekin gure babes osoa ematen diegu».

Bestalde, pasa den asteartean egindako bilkura berezian hartutako erabaki bati buruzko desadostasuna azaldu zuen atzoko prentsaurrekoan Sustraiak plataformak. «Edurene Arbelegi alkateak bere buruari soldata igo dio», adierazi zuten eta «296 biztanle dituen herri txiki bateko alkateak 997,68 euro (gordina 1.103,83 euro) irabazten ditu egunean 4 ordu lan egiteagatik, gehi dieta guztiak: laneko bazkariak, telefonoa, taxia...», gehitu zuten. Eta hori, «eskandalu hutsa» dela eta «herriko jauntxoaren ustelkeriak nonbait ez duela mugarik», azaldu zuten. Era berean «dena herriaren alde edo dena herriaren kontu?», galdera luzatu zuten.

Sustraiak plataformak herritar guztiak jai on batzuk pasatzea opa die, eta «herriko kazi-keei eta ustelkeriari» aurre egiteko konpromisoa berriro aldarrikatu.

## HERNIALDE ▶

‘Eman eta gero’  
emanaldia gau  
Kultur Etxean

Gaur 17:00etan Hernaldeko kultur etxean *Eman eta gero* haurrentzako emanaldiari zango da ikusgai Enkarni Genuaren eskutik. Obra honek solidaritatea aldarrikatzen du. Mahai baten gainean diharduten txotxongiloekin, argi beltzeko efektuekin, diapositibekin eta beste ezustekoekin gure hainbat kezka mintzatuko da.

## AMEZKETA ▶

Musika eskolako  
ikasleen udako  
kontzertua

Gaur 16:00etan Amezketa musika eskolako ikasleek ohiko udako kontzertua eskainiko dute Zumadi eskolan. Pianoa, gitarra, trikitixa eta panderoa soinuak izango dira entzungai, kantuekin batera. Herritar guztiak kontzertura joatera gonbidatuak daude.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212  
▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423  
▶ Baliarrain. Medikua: 889003  
▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361  
▶ Bidegoian. Medikua: 681134  
▶ Ibarraldea. Osasun ebea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329  
▶ Irura. Osasun zentroa: 690720  
▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800  
▶ Orendain. Medikua: 655595  
▶ Orea. Medikua: 682228  
▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 006800  
▶ Gernikako arbola: 006900  
▶ Amaroako dispen.: 672637  
▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536  
▶ Gurutze Gorria: 674888  
▶ Villabona. Anbulat.: 006970  
▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

## Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02  
▶ Donostiako autobusa: 361740  
▶ Tolosaldea bus: 650621  
▶ Leitzarar autob.: 948 221015  
▶ Taxia: 670420  
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820  
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858  
▶ Tolargi: 650016  
▶ Iurrumendi egoitza: 670325  
▶ Tolosa gasa: 675320



## GORA SAN JUAN!

Ondo pasatzea, parte hartzea, dantzan eta saltoka ibiltzea. Jaiak hori dena dira, eta askoz gehiago ere bai.

IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIAK ▶

# Gazteek jai giroan agurtu dute ikasturtea

Eskualdeko hainbat ikastetxek egin dituzte jaialdiak azken egunotan

## ERREDAKZIOA

Eguraldi onak eta udaren etorrerak ikastetxeetako ikasturtearen amaiera iragartzen dute. Bada, eskualdeko ikastetxe ugari 2004/05 ikasturteari agur berezia eman nahi izan diote azken egunotan. Horrela, Tolosako Hirukide eta Samaniego, Villabonako Fleming, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño, Anoetako ikastola, Irurako ikastola eta Amezetako Zumadi eskolak, besteak beste, euren jaialdiak egin dituzte.

Ikasle, irakasle zein gurasoek hartu dute parte, eta guztietan ere ez da falta izan musika, antzerkia eta, batik bat, festa giroa. Iragan asteburuan ikastetxe askok egin zuten jaialdia. Tolosan Samaniego eta Hirukideren txanda izan zen. Biek ala biek puzgarri tailerrak, ume jolasak, kirolak, antzerki emanaldiak eta bazkaria antolatatu zituzten, besteak beste.

Pedro Mari Otañoko gurasoko ere gustura zeuden egindako jaiarekin; bazkarian, esaterako, 150 lagun bildu ziren. Anoetako eta Irurako ikastolek batera egin zuten jaia eta giro onean eta partaidetza handiarekin igaro zuten eguna. Fleming, besteak beste, ikastetxean 6. mailakoek ezusteko dantza saio berezia prestatu zuten eta bertso saio ederra entzuteko aukera izan zen. Atzokoan, berriz, Amezetako Zumadi eskola festa giroan murgildu zen adin guztietako haurtxoek musikaren gainean eskainitako antzerki emanaldiekin.

Orain gaztetxoek saso gogokoena iristen da. Ikasgai guztiak gainditu dituztenak San Joan suara *bota* ahalko dituzte gaur liburuak eta bestelakoak. Beste batzuk, ordea, udan ere errepasotxoren bat edo beste egin beharko diete hauei. Dena den, guztiek ere gozatzeko bi hilabete dituzte aurretik.



**Tolosa.** Adin guztietako Samaniego ikasleek emanaldia eskaini zuten Uzturpe pilotalekuan bildu zirenen aurrean. Txikiak sukaldariz, beste batzuk *lolailoz*—argazkian—, besteak gimnastika erritmikoa egin zuten... mozorroa aukerata, egun borobila igaro zuten denek ere iragan larunbatean. HITZA



**Hirukide.** Dantzaren eta jolasen ondoren indarberritzeko beharra ere badago. Hirukideko ikasle, irakasle zein gurasoek ere bazkari goxoaz gozatu zuten Eskolapioetako kiroldegian. HITZA



**Zizurkil.** Goizean zehar egindako ikasleen emanaldiak arrakastatsuak izan ziren Pedro Mari Otaño eskolan. Arratsaldean, jolaserako tartea izan zuten festara hurbildu zirenek. HITZA



**Villabona.** Bazkalostean haurrek ez zuten aspertzirik izan Fleming-en, gurasoek antolaturiko puzgarri eta euskaraokeari esker. HITZA

## iragarki laburrak ▶

### SALGAI

**Etxebizitza.** Tolosa erdialdean 126 m2 dituen etxebizitza salgai. Kanpoaldera. Garajearekin. Oso egoera onean. Deitu 649 25 40 80 zenbakira.

**Ahuntz nanoak.** Ahuntz nanoak salgai. Interesatuak deitu

650 86 56 26 edo 948 51 42 68 zenbakietara.

### LANA

**Sukaldaria.** Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 zenbakira.



**Amezketa.** Zumadi eskolakoek atzo egin zuten euren jaialdia. Maila guztietako ikasleek emanaldia eskaini zuten bertaratuen aurrean. NOELIA LATABURU



**Anoeta eta Irura.** Musikak ere bere tartea izan zuten egun guztian zehar ikastolan. Kalejirak eta kontzertuak alaitu zuten festa. HITZA

